



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko otsailaren 10a

17. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Unibertsitate Publikoan kontabilitate analitikoa ezartzeari eta gomendioak jarraitzeari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Unibertsitate Publikoan kontabilitate analitikoa ezartzeari eta gomendioak jarraitzeari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021ko urtarrilaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Unibertsitate Publikoan kontabilitate analitikoa ezartzeari eta gomendioak jarraitzeari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea (10-20/CCO-00036).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Unibertsitate Publikoan kontabilitate analitikoa ezartzeari eta gomendioak jarraitzeari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Nafarroako Unibertsitate Publikoa (3. or.).
- III. Xedeak eta irismena (5. or.).
- IV. Konklusioak eta gomendioak (6. or.).
 - IV.1. Kontabilitate analitikoa (6. or.).
 - IV.1.1 NUPen kontabilitate analitikoa ezartzea (9. or.).
 - IV.1.2 Prezioak finkatzeko prozedura (9. or.).
 - IV.1.3 Unibertsitatearen ohiko finantzaketa (13. or.).
 - IV.1.4 Unibertsitatean ikasteko laguntzak (14. or.).
 - IV.2. NUP 2017 txosteneko gomendioen jarraitpena (16. or.).
 1. eranskina.- 2012-2018 aldian zerbitzu akademikoak emategatiko prezio publikoen bilakaketa (20. or.).
 2. eranskina.- NUPen 2018-2020 aldirako urte anitzeko finantzaketa-hitzarmena (21. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganberak urteko fiskalizazio-programan sartu zuen Nafarroako Unibertsitate Publikoan (aurrerantzean, NUP) kontabilitate analitikoa ezartzeari eta NUP 2017 auditoretzatxosteneko gomendioak jarraitzeari buruzko auditoretza-txosten bat egiteko asmoa.

Txostenak lau atal ditu, sarrera hau barne; bigarrenean, NUPen alderdi orokorrak deskribatzen dira; hirugarrenean, egindako lanaren helburuak eta irismena azaltzen dira, eta laugarren eta azkenak konklusio eta gomendio nagusiak jasotzen ditu.

Halaber, bi eranskin ditu, prezio publikoek 2012-2018 aldian zerbitzu akademikoen arloan izandako bilakaerari eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2018-2020 aldirako urte anitzeko finantzaketa-hitzarmenaren ezaugarriei buruzkoak.

Lanaren lehenengo zatia, NUPen kontabilitate analitikoa ezartzeari buruzkoa, Kontuen Auzitegiarekin eta kanpo-kontrolerako organoekin koordinatuta egin da.

Lanaren bigarren zatian, berriz, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2017ko ekitaldiko fiskalizazio-txosteneko gomendioen jarraipena egin da (ganbera honek 2019ko martxoan argitaratu zuen txosten hori).

Lana 2020ko urrian eta azaroan egin zuen auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osaturiko taldeak, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoekin eta administratiboekin lankidetzan.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, lan honen emaitzen berri eman zitzaizkien Gizarte Kontseiluko errektoreari, kudeatzaileari eta presidenteari, guztiak izaki Nafarroako Unibertsitate Publikoak, eta Nafarroako Gobernuaren Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuko kontseilariari, alegazioak egin zitzaizkien.

Jarritako epea iraganda, ez da alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak eman nahi dizkiogu NUPeko eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuko langileei, lan hau egitean laguntzeagatik.

II. NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

NUP zuzenbide publikoko erakunde bat da, berezko nortasun juridikoa duena, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzeari buruzko apirilaren 21eko 8/1987 Foru Legeak sortu zuen. Bada, goi-mailako hezkuntzaren zerbitzu publikoa ematen du, irakaskuntzaren eta ikerketaren bidez.

GOBERNU- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

Unibertsitatearen gobernu- eta administrazio-eginkizunetarako, eremu orokorreko kide anitzeko organoak (Gizarte Kontseilua, Gobernu Kontseilua eta Unibertsitateko Klaustroa) eta eremu partikularreko organoak (Zentroko Batzordea eta Departamentuko Kontseilua) daude, bai eta pertsona bakarreko organoak egon ere: eremu orokorrekoak (errektorea, errektoreordea, idazkari nagusia eta kudeatzailea) nahiz eremu partikularrekoak (eskolako dekanoa edo zuzendaria eta departamentuko zuzendaria).

ANTOLAKETA-EGITURA

NUPeko irakaskuntza bi campusetan dago antolatuta, zeinak Iruñean eta Tuteran dauden, eta lau fakultate, goi-mailako bi eskola, hamaika departamentu, doktorego-eskola bat, zazpi ikerketa-institutu, I+G zentro bat, hamasei katedra eta hezkuntza-berrikuntzarako goi-mailako zentro bat daude.

Jarduera kudeatzeko, errektorearen, errektoreordeen/Idazkaritza Nagusiaren eta kudeatzailearen/Giza Kapitala Planifikatzeko Gerentziaordetzaren mendeko zerbitzu eta unitateetan egituratzen da.

LOTUTAKO ENTITATEAK

NUPek partaidetza gehiengoduna dauka Unibertsitatea-Gizartea Fundazioan. Bada, fundazio hori Gobernu Batzordearen 1996ko abenduaren 20ko Erabakiaren bidez sortu zen, elkarrizketa sustatu eta unibertsitatearen eta Nafarroako gizartearen arteko lankidetzaren bideratzeko asmoz.

Fundazioaren gobernu-, zuzendaritza- eta administrazio-organoak Patronatu Batzordea, Errektoretza Batzordea eta zuzendari kudeatzailea dira.

ARAUBIDE EKONOMIKO-FINANTZARIOA

NUPek autonomia ekonomiko eta finantzarioa du, eta Unibertsitateei buruzko Lege Organikoan, Nafarroako Foru Komunitateko sektore publikoari aplikatu dakiokeen finantza- eta aurrekontu-legedian eta bere estatutuetan ezarritakoaren arabera gidatzen du jardueraren ekonomiko finantzarioa.

NUPeko aurrekontuak Gobernu Kontseiluak ezarritako ildo estrategikoen esparruan egiten dira.

2017ko abenduan, 2018-2020 aldirako urte anitzeko finantzaketa-hitzarmena sinatu zuten Nafarroako Gobernuak eta NUPek, unibertsitatearen egonkortasuna eta bideragarritasun finantzarioa bermatzeko helburuz.

Unibertsitatearen urteko kontuak Kontabilitate Publikoaren 1994ko Plan Orokorren arabera aurkezten dira.

Honako hauek dira NUPen finantzaketa-iturriak:

Nafarroako aurrekontu orokorretatik datozen transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak.

Zerbitzu akademikoak eta titulu ofizialak eskuratzeko gainerako eskubideak emateagatikotasen eta prezio publikoen diru-sarrerak.

Irakaskuntza propioen, espezializazio-ikastaroen eta Gizarte Kontseiluak onetsitako bestelako jardueren prezioak.

Erakunde publiko zein pribatuetatik datozen dirulaguntzak.

Kontratuen eta hitzarmenen diru-sarrerak.

Diruzaintzako gerakina eta bestelako diru-sarrerak.

APLIKATZEKO DEN ARAU-ESPARRUA

NUPen aplikatu daitezkeen arau-esparrua, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- 6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa, Unibertsitatei buruzkoa (LOU), apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoa eta Hezkuntzaren arloko gastu publikoa arrazionalizatzeko premiazko neurriei buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretuak aldatua.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 20koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 3/2017 Legea, ekainaren 27koa, Estatuko 2017rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 6/2018 Legea, uztailaren 3koa, Estatuko 2018rako Aurrekontu Orokorrena.
- 1721/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, ikasteko beka eta laguntza pertsonalizatuaren erregimena ezartzen duena.
- Familia-errentaren eta -ondasunaren atalaseak eta ikasteko beken eta laguntzen zenbatekoak ikasturte bakoitzerako ezartzen dituzten errege-dekretuak.
- 8/1987 Foru Legea, apirilaren 21ekoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzen duena.

- 15/2008 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluari buruzkoa.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoaren estatutuak, maiatzaren 12ko 110/2003 Foru Dekretuak onetsi eta Nafarroako Gobernuaren 2011ko martxoaren 21eko Erabakiak aldatu zituenak.
- Unibertsitatea-Gizartea Fundazioaren estatutuak.

III. XEDEAK ETA IRISMENA

Honako hauek dira lan honen helburuak:

- Kostuen kontabilitate analitikoa ezartzeari dagokionez:
 - a) Unibertsitateak kostuen eredu bat zenbateraino ezarri duen egiaztatzea.
 - b) Titulu ofizialak eskuratzeko ikasketen prezio publikoak finkatu eta aldatzeko prozedura egiaztatzea.
 - c) Unibertsitatearen ohiko finantzaketa eredua azaldu eta aztertzea.
 - d) Unibertsitatean ikasteko laguntzen finantzaketa sistema iragankorrean prezio publikoak zerbitzuaren kostuaren arabera finkatzeak dituen ondorioak aztertzea.
- Kontuen Ganbera honek NUP 2017 auditoretza-txostenean emandako gomendioen betetze-maila egiaztatzea.

Gure lana egiteko, honako informazio hau aztertu dugu:

- NUPek eta Nafarroako Gobernuaren Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak emandako dokumentazioa.
- Ganbera honek Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2017ko ekitaldiko fiskalizazio-txostenean emandako gomendioen betetze-mailari buruz igorritako galdetegiari NUPek emandako erantzunak.

Lan honen irismena 2017ko eta 2018ko ekitaldiei dagokie (2017-2018 eta 2018-2019 ikasturteei). Hala ere, fiskalizazioan finkatutako xedeak betetzeko egokitzat jotako dokumentazioa, egitateak eta jarduketak ere kontuan hartu dira, aipaturiko ekitaldiak baino lehenagokoak edo ondorengoak izan arren. Kontabilitate analitikoaren ezarpen-maila eta gomendioen betetze-maila egiaztatzean, txosten hau idatzi arte egindako jarduketa guztiak hartu dira aintzat.

IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN ERANTZUKIZUNA

Errektorearen zuzendaritzapeko Gerentzia arduratzen da unibertsitatean kontabilitate analitikoaren ezartzeaz eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2017ko ekitaldiko fiskalizazio-txostenean emandako gomendioak betetzeaz.

Gainera, Gerentziak bermatu behar du kontabilitate analitikoaren ezartzeko eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2017ko ekitaldiko fiskalizazio-txostenean emandako gomendioak betetzeko egindako kudeaketa-jarduerak arau aplikagarriekin bat egiten dutela.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da gure fiskalizazioan oinarrituriko iritzia ematea, unibertsitateko kontabilitate analitikoaren ezarpen-mailari eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2017ko ekitaldiko fiskalizazio-txostenean emandako gomendioen betetze-mailari dagokienez.

Horri begira, Kanpo Kontrolerako Erakunde Publikoaren fiskalizazioaren printzipio nagusien arabera eraiki dugu iritzia (ISSAI-ES arauetan daude ezarritako printzipiook), eta, funtsean, ISSAI-ES 200 eta 400 arauak aplikatu ditugu. Printzipio eta gidalerro horiek etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula eskatzen digute, baita fiskalizazioa planifikatu eta burutu dezagula ere, baliabide publikoaren kudeaketa –alde esanguratsu guztietan– indarreko araudiarekin bat datorrelako arrazoizko segurtasuna lortzeko.

Fiskalizazio batek prozedurak aplikatzea eskatzen du, lortutako konklusioak oinarrituko dituzten auditoretza-ebidentziak lortzeko. Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako oinarri egokia jasotzen du, ateratako konklusioei funtse emateko.

IV.1. KONTABILITATE ANALITIKOA

LEGE-ESPARRUA

Unibertsitatean kontabilitate analitikoaren sistema bat ezartzeak zerikusi zuzena du unibertsitateko zerbitzu publikoaren prezioaren eta bere kostuaren arteko erlazioarekin, unibertsitateen ohiko finantzaketa ereduarekin eta unibertsitateko ikasleentzako beken, laguntzen eta maileguen politikarekin.

- Unibertsitateei buruzko Lege Organikoak (LOU) 81. artikuluan ezarri zuen prezioaren eta kostuaren arteko erlazioa, honako hau xedatzen baitzuen hasierako bertsioan: «Autonomia-erkidegoak finkatuko ditu prezio publikoak eta eskubideak, Unibertsitateak Koordinatzeko Kontseiluak ezarritako mugen barruan, eta zerbitzua ematearen kostuekin lotuta egonen dira».

2012ra arte, Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorrek¹ urtero finkatzen zuen prezioak aurreko ikasturtetik hurrengora igotzeko urkila bat, eta autonomia-erkidego bakoitzak hautatzen zuen prezio publikoei aplikatu nahi zien igoera, ezarritako tarteen barruan.

Hezkuntzaren arloko gastu publikoa arrazionalizatzeko premiazko neurriei buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretuak LOUren 81.3.b) artikulua aldatu zuen, prezio publikoek gradu- eta master-ikasketen kostuak estaltzeko adinako tartea gaineratu baitzizkion aurretik xedatutakoari:

1. Gradu-ikasketak: lehenengoz matrikulatzean, kostuen ehuneko 15 eta 25 artean ordainduko da prezio publikoaren bidez; ehuneko 30 eta 40 artean, bigarren matrikulatzean; ehuneko 65 eta 75 artean, hirugarren matrikulatzean, eta, ehuneko 90 eta 100 artean, laugarren edo gehiagotan matrikulatzean.

¹ Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorrek Unibertsitateak Koordinatzeko Kontseilua ordezkatu zuen 2007an.

2. *Master-ikasketak, Espainian araututako jarduera profesionaletan aritzeko gaitzen dutenak: lehenengoz matrikulatzean, kostuen ehuneko 15 eta 25 artean ordainduko da prezio publikoen bidez; ehuneko 30 eta 40 artean, bigarrenaz matrikulatzean; ehuneko 65 eta 75 artean, hirugarrenez matrikulatzean, eta, ehuneko 90 eta 100 artean, laugarrenez edo gehiagotan matrikulatzean.*

3. *Lehengoz besteko master-ikasketak: lehenengoz matrikulatzean, kostuen ehuneko 40 eta 50 artean estaliko da prezio publikoen bidez, eta, ehuneko 65 eta 75 artean, hirugarrenez edo gehiagotan matrikulatzean.*

Ondoren, Estatuko 2017rako Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 27ko 3/2017 Legeak aldatu egin zuen jarduera profesionaletan aritzeko gaitzen ez duten master-ikasketen kostuen tartea, honako hau adieraziz: «*Ehuneko 15 eta 50 artean ordainduko da prezio publikoen bidez, lehenengoz matrikulatzean; ehuneko 30 eta 65 artean, bigarrenaz matrikulatzean, eta ehuneko 65 eta 100 ehun artean, hirugarrenez edo gehiagotan matrikulatzean*». Estatuko 2018rako Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legeak, berriz, graduaren kostua estaltzeko gutxieneko portzentajea kendu zuen, ehuneko 15etik Ora igaroz.

Azkenik, adierazi beharra dugu COVID-19ak eragindako egoera sozioekonomikoaren aurrean premiazko neurriak hartu direla unibertsitatean 2020-2021 ikasturteari begirako prezio publikoen sistema aldatzeko. 17/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetatik seigarrenak (17/2020 Errege Lege Dekretua, maiatzaren 5ekoa, kultura-sektoreari laguntzeko eta zergak ordaintzeko neurriak onartzen dituen, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko) urkila-sistema deuseztatu du, eta honela eman du 81.3.b) artikulua:

«*b). Nazio-lurralde osoan balio duten titulu ofizialetarakoak diren ikasketen prezio publikoak eta eskubideak autonomia-erkidego bakoitzak ezarriko ditu, Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorrek ezartzen dituen gehieneko mugen barruan eta zerbitzu-ematearen kostuekin lotura dutela.*

Halaber, prezio publikoen eta gainerako eskubideen arloan legez xedatzen diren salbuespen eta murriztapenen ondoriozko zenbatekoei dagozkien konpentsazioak esleituko dira».

2020ko maiatzaren 27an, Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorrek graduiko lehenengo matrikularen prezioak murriztea hitzartu zuen, 2011-2012 ikasturteko batez besteko prezioak erreferentziatzat hartuta, eta, era berean, graduiko bigarren eta hurrengo matrikulen prezioak nahiz masterretako matrikulak azken urtekoak baino altuagoak ezin zitezkeela izan erabaki zuen.

• LOU aldatzen duen apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak kostuen sistema bat ezartzeko premia arautu, eta unibertsitateek autonomia-erkidegoetatik jaso beharreko ohiko finantzaketarekin lotu zuen sistema hori. Horrela, honako hau zioen LOUren zortzigarren xedapen gehigarri berriak: «*Urtebeteko gehieneko epean, Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorrek, Unibertsitateen Kontseiluaren txostena jaso ondoren, botere publikoei unibertsitate publikoen finantzaketa egokia ezartzen lagunduko dien erreferentziatzko kostu-eredu bat eginen du...».*

2011n, Hezkuntza Ministerioaren Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorrek unibertsitateetarako kontabilitate analitikoko eredia onetsi zuen. Eredua nahitaez bete beharrekoa zen, eta ematen den informazioa Espainiako unibertsitate publiko guztietan homogenea eta konparagarria izateko irizpideak arautzen zituen.

2015ean, Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentziak kontabilitate analitikoari eta finantza- nahiz informazio-sistemei buruzko lantaldea sortu zuen, egoera aztertu eta unibertsitate publikoetan kontabilitate analitikoaren benetan ezartzen laguntzeko ekintzak proposa zituan.

Lantalde hori Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentzia-Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa lantalde mistora sartu zen, zeinaren helburua den bi erakundeen arteko lankidetzari bide ematea, kontabilitate analitikoaren ezartzeko xede komuna lortzeko.

2018an, Estatuko unibertsitate publikoen multzoan zailtasunak hauteman zirenez, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak ezarpen-data aldatu zuen (hasiera batean, 2015-2016 ikasturterako zegoen aurreikusita), honako hau eskatzearekin bat: «*Lantaldea garatzen ari den konpromisoarekin jarraitu behar da, Estatuko unibertsitate publiko guztietan kontabilitate analitikoaren ezartzeko orduan aurrera egin eta, horrela, unibertsitate publikoetan 2020-2021 ikasturterako kontabilitate analitikoaren ezarri ahal izan dadin*».

Orain arte egindako lanetatik, unibertsitateetarako kontabilitate analitikoko eredu sinplifikatu berriaren lehenengo zirriborroa sortu da, indarreko ereduaren oinarrituta. Bada, Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentzia-Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa lantaldeak Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Konferentzia-I+G+b batzorde sektorialari eta Estatuko Administrazio Orokorraren Kontu Hartzailetzari aurkeztu die eredu berria, haien iradokizunak, hobekuntza-proposamenak eta gogoetak jasotzeko.

- LOUren 45. artikulua, arrazoi ekonomikoak tarteko inor unibertsitatean ikasi gabe gera ez dadin, ikasteko beka eta laguntzak erregulatzen ditu, eta honako hau ezartzen: «*Gobernuak eta autonomia-erkidegoek, baita unibertsitateek beraiek ere, ikasleentzako beka-, laguntza- eta maileru-politika bat gauzatuko dute, eta unibertsitate publikoek, halaber, zerbitzu akademikoaren prezio publikoak zati batean edo osorik ordaintzetik salbuesteko modalitateak ezarriko dituzte*».

Unibertsitate publikoek jasotzen duten finantzaketaren kontrakontu gisara, LOU aldatzen duen apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak honako hau txertatu zuen hemeretzigarren xedapen gehigarrian: «*Unibertsitateko tasen edozein murriztapen, eskudun administrazioak arautu badu, unibertsitateko aurrekontuetan konpentsatuko da urtero, transferentzien bidez*».

Dagoeneko aipatu dugun 14/2012 Errege Lege Dekretuan ezartzen da unibertsitateei laguntza horiek konpentsatzeko finantzaketa-sistema. Bada, Estatuaren eta autonomia-erkidegoen aurrekontu orokorren artean banatuko da laguntzen kostua: Estatuak ikasketa bakoitzaren prezio publikorako ezarrita dagoen urkilaren beheko mugari dagokion kopurua finantzatuko du, eta autonomia-erkidegoek finkatzen duten prezio publikoaren eta ikasketa bakoitzari dagokion gutxieneko mugaren arteko aldea finantzatuko dute, oso-osorik.

Sistema iragankor gisara, honako hau xedatzen du 7.2. artikulua: «*Unibertsitate guztiek kontabilitate analitikoko sistemak ezarri arte, eta, asko jota, 2015-2016 ikasturtera arte, errege lege-dekretu hau indarrean jartzen den unean titulazio bakoitzerako indarrean den prezio publikoa izanen da Estatuko aurrekontu orokorren kontura finantzatuko den matrikula-osagaiaren zatia. Kopuru horiek urtero eguneratuko dira, Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorrak zehazten duen koefizientea aplikatuta*».

Bestalde, abenduaren 21eko 1721/2007 Errege Dekretuak ikasteko beka eta laguntza pertsonalizatuen erregimena ezarri zuen.

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak urtero argitaratzen du errege-dekretu bat, dagokion ikasturterako familia-errentaren eta -ondasunaren atalaseak eta ikasteko beken eta laguntzen zenbatekoak ezartzen dituena. Gisa berean, matrikula ordaintzetik salbuesteagatik unibertsitateei emanen zaien konpentsazioa zein den adierazten du xedapen gehigarrietan.

2012-2013 ikasturtetik, ikasturte horretarako familia-errenta eta -ondasunaren atalaseak eta ikasteko beken eta laguntzen zenbatekoak ezartzen dituen ekainaren 29ko 1000/2012 Errege Dekretuarekin bat eginez, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak 2011-2012 ikasturterako finkatutako prezio publikoaren kopuru bera eman behar zion unibertsitateei, ehuneko 1ean eguneratuta, bekadun ikasle bakoitzeko. Ministerioak emandako kopurua autonomia-erkidegoak 2012-2013 ikasturterako finkatutako prezio publikoa baino txikiagoa izanez gero, autonomia-erkidego horrek diferentzia konpentsatu behar zion unibertsitateari, bekaren onuraduna edozein betebeharrak ekonomikotik salbuetsi zedin benetan.

Ondoren, hainbat errege-dekretu 2012-2013 ikasturterako baldintza beretan mantendu dute Ministerioak unibertsitateei egin behar dien ekarpena, hurrengo ikasturteei begira.

2016-2017 ikasturterako familia-errenta eta -ondasunaren atalaseak eta ikasteko beken eta laguntzen zenbatekoak ezartzen dituen uztailaren 15eko 293/2016 Errege Dekretuaren bidez, artean kontabilitate analitikoaren sistema ezarri gabe zegoenez, 2015-2016 ikasturtera arte ezarritako erregimen iragankorra luzatu zen, Estatuko aurrekontu orokorrek matrikula ordaintzetik salbuetsitako bekadun bakoitzeko egin beharreko ekarpenaren zenbatekoa kalkulatzeko.

Azkenik, honako hau adierazi behar dugu: 2013-2014 ikasturterako familia-errenta eta -ondasunaren atalaseak eta ikasteko beken eta laguntzen zenbatekoak ezartzen dituen abuztuaren 2ko 609/2013 Errege Dekretuak hiru seme-alaba dituzten familia ugarietako eta antzekoetako ikasleen matrikulen ehuneko 50eko hoberia txertatu zuen konpentsazio gisara.

IV.1.1 NUPen kontabilitate analitikoa ezartzea

- NUPeko errektorearen uztailaren 29ko 1177/2011 Ebazpenaren bidez, unibertsitatean kontabilitate analitikoko sistema ezartzea onetsi zen, eta Pertsonalizazio Batzordea sortu.

NUPek kontabilitate analitikoa ezartzeko plan bat diseinatu zuen, "Unibertsitateetarako Kontabilitate Analitikoaren Eredua: CANOA Ereduen Partikularizazioa" deritzon jasotzen diren orientabideekin bat eginez. Eredua hori denboran zehar aldatzen joan da, eta, hain zuzen ere, berori pertsonalizatu eta ezartzeko kontratatu zuen NUPek Unibertsitate Lankidetzarako Bulegoa.

NUPen funtzionamendua ereduaren elementu teorikoetara moldatu zen, eta garatutako lanek honako hauei begiratu zieten: kostuaren, diru-sarreraren, kostu-zentroen eta erantzukizun-elementuen zehaztapen eta definizioari; jarduerari eta zerbitzuei; barne-harremanei; banaketa- eta egozketa-irizpideei; ereduari informazioa ematen dioten kudeaketa-sistemei eta kostuen nahiz kudeaketaren *output* informatiboari eta adierazleei.

Prozesu horretan, Unibertsitate Lankidetzarako Bulegoak diseinaturiko aplikazio informatikoa erabili du NUPek.

- 2016ko apirilean, "Unibertsitateetarako Kontabilitate Analitikoaren Eredua: CANOA Ereduen Partikularizazioa pertsonalizatzeko txostena, Nafarroako Unibertsitate Publikoarena, 2011koa" baliozkotu zuen IGAEk. Halaber, ereduaren Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentura eraman zuten.

Lehenengo fasea amaitu bazen ere, NUPen kontabilitate analitikoa ezarri eta sendotzeko lanek bere horretan dira oraindik orain, prozesua ez delako amaitu, bai datuak nahiz lan-prozedurak etengabe aztertu eta berrikusi behar direlako, bai ekitaldiak eguneratu behar direlako eta abar.

Gainera, prozesu horretan bestelako kontuak ere jorratu behar izan dira; hala nola, aurrekontu-, kontabilitate-, inbentario- eta informazio-sistematik ereduaren ondoriozko eskakizunetara egokitu dira, eta NUPeko kontabilitate analitikoko sistemaren eta gainerako kudeaketa-sistemen arteko interfazeak zehaztu.

- Paraleloki, NUP kontabilitate analitikoaren ereduaren egindako aldaketetara moldatu da; kontabilitate analitikoari eta finantza- nahiz informazio-sistemei buruzko lantaldean parte hartzen du, eta Ministerioak unibertsitateetarako kontabilitate analitikoko eredu berria onesteko zain dago.

- Honako hauek izan dira ereduaren ezartzeko sorturiko arazo nagusiak: CANOA ereduaren NUPen errealitateari egokitzea, ereduaren arazko aldaketak aintzat hartzea, kontabilitate analitikoari datuak eman behar dizkion informazio-sistema bateraezinetarako soluzioak bilatzea edo horiek egokitzea eta sistema informatiko berriak ezartzea (beraz, baita horiek ezagutu, erosi eta horietan inbertitzea ere).

- NUPeko kudeatzaileak Ekonomia Gaietako Zuzendaritzako teknikari bati esleitu zizkion kontabilitate analitikoa ezartzeko eginkizunak.

- Kontabilitate analitikoa ezartzeko prozesuan, ez dago NUPen eta Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren arteko lankidetzaren prozedurarik ezarrita, baina badago kontabilitate analitikoaren ezarpenaren egoerari eta berori ezartzeko egiten diren lanei buruzko komunikazioa.

Beraz, NUPek ez du behin betiko eta modu eraginkorrean ezarri kontabilitate analitikoaren ereduak, eta kontabilitate-eredu berria onetsi arte (gaur egun, analisi-fasean dago) atzeratu du behin betiko ezarpena.

Ezarpena abiatu eta garatzeko lanak unibertsitatearen bitartekoen kargura egin dira.

IV.1.2 Prezioak finkatzeko prozedura

Zerbitzu akademikoak eta NUPen titulu ofizialak eskuratzeari begirako gainerako eskubideak emategatiko prezio publikoak Nafarroako Gobernuak finkatzen ditu urtero.

Hona hemen 2012-2013 ikasturterako prezio publikoen finkapena eta ondoko urteetan izandako bilakaera.

Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateetako zuzendari nagusiaren uztailaren 13ko 442/2012 Ebazpenaren bidez, 2012-2013 ikasturterako prezio publiko hauek finkatu ziren:

1. Gradu-ikasketak. Lehenengo matrikularen oinarriko prezioa kalkulatzeko, 2011-2012 ikasturteko matrikularen ehuneko 4 gaineratu behar da. Lehenengo matrikularen oinarria zerbitzua emateko kostuaren ehuneko 15 dela kontuan hartuta, kostu-estalduraren beheko tartean finkatzen dira bigarren, hirugarren, laugarren eta hurrengo matrikuletarako prezioak; hau da, kostuaren ehuneko 30, 65 eta 90, hurrenez hurren.

2. Gaitzen duten master-ikasketak. Gaitzen duten masterretako lehenengo matrikularen kredituetarako baimendutako prezioa kalkulatzeko, 2011-2012 ikasturteko lehenengo matrikularen ehuneko 4 gaineratu behar da. Lehenengo matrikularen oinarria zerbitzu emateko kostuaren ehuneko 25 dela kontuan hartuta, dagokion urkilaren beheko muturrean finkatzen dira hurrengo matrikuletarako prezioak; hau da, kostuaren ehuneko 30, 65 eta 90, hurrenez hurren.

3. Gaitzen ez duten master-ikasketak. Aurreko kostuetatik abiatuta, ehuneko 4an ezarri zen 2011-2012 ikasturteko lehenengo matrikularen kostua, masterraren kostuaren ehuneko 40 estaltzeko moduan. Bigarren eta hurrengo matrikulen prezioa, berriz, ehuneko 65ean finkatu zen, dagokion urkilaren beheko portzentajeetan.

Hau da, 14/2012 Errege Dekretuan ezarritako urkilaren beheko portzentajeetan ezarri ziren gradu eta masterreko prezioak, gaitzen duen masterraren lehenengo matrikulan izan ezik, dagokion urkilaren gehieneko portzentajea (ehuneko 25) onetsi baitzen.

Adierazi beharra daukagu aurrekontu-betearazpenaren datuak hartu zirela aintzat 2012-2013 ikasturtean prezio publikoek estaliriko irakaskuntza-kostuaren portzentajea kalkulatzeko xedez, NUPek artean ez zeukalako kostua zuzenean kalkulatzeko ahalbidetzen zuen kontabilitate analitiko sistematik ezarrita. Aurrekontuaren datuotan oinarrituta, gradu eta masterreko matrikulen batez besteko zenbatekoei dagokienez, ikasturte horretan lehenengo matrikularako ezarritako prezioak gradu-zerbitzua emateko kostuaren ehuneko 15, gaitzen duen masterraren kostuaren ehuneko 25 eta gaitzen ez duen masterraren ehuneko 40 zirela balioetsi zen.

Kostu balioetsi horietatik abiatuta, bigarren eta hurrengo matrikulen prezioak kalkulatu ziren, dagozkien urkilaren beheko mailetakoko portzentajeekin bat eginez.

Honako taula honetan, unibertsitateak 2012-2013 ikasturtetik ezarri dituen portzentajeak ikus ditzakegu:

	14/2012 Errege Lege Dekretua	2012-2013 ikasturtea	3/2017 Legea Estatuko aurrekontua	2017-2018 ikasturtea	6/2018 Legea Estatuko aurrekontua	2018-2019 ikasturtea
Gradua						
1. matrikula	15-25	15	-	15	0 - 25	15
2. matrikula	30-40	30	-	30	-	30
3. matrikula	65-75	65	-	65	-	65
4. matrikula eta hurrengoak	90-100	90	-	90	-	90
Master gaitzailea						
1. matrikula	15-25	25	-	20	-	20
2. matrikula	30-40	30	-	30	-	30
3. matrikula	65-75	65	-	65	-	65
4. matrikula eta hurrengoak	90-100	90	-	90	-	90
Master ez gaitzailea						
1. matrikula	40-50	40	15-50	25	-	25
2. matrikula eta hurrengoak	65-75	65	30-65	30	-	30
3. matrikula eta hurrengoak	-	-	65-100	65	-	65

Hezkuntzaren arloko gastu publikoa arrazionalizatzeko premia neurri buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretua aplikatuz onartu ziren 2012-2013 ikasturterako prezio publikoak, eta aurreko ikasturterako finkatutako prezioak nabarmen igotzea ekarri zuen horrek; batez ere, gradu-ikasketetako bigarren eta hurrengo matrikuletan (ehuneko 108, 200 eta 316).

Honako taula honetan jasotzen diren foru-ebazpen eta -aginduen bidez, hurrengo ikasturteetarako prezio publikoak eguneratu ziren:

Ikasturtea	KPIaren portzentajea	
2013-2014	1,3	303/2013 EBAZPENA, ekainaren 10ekoa, Hezk., Lanb. Hezk. ea Unibertsitateetako zuzendari nagusiarena
2014-2015	0	257/2014 EBAZPENA, ekainaren 16koa, Hezk., Lanb. Hezk. ea Unibertsitateetako zuzendari nagusiarena
2015-2016	0	208/2015 EBAZPENA, maiatzaren 15ekoa, Hezk., Lanb. Hezk. ea Unibertsitateetako zuzendari nagusiarena
2016-2017	0	380/2016 EBAZPENA, ekainaren 7koa, Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiarena
2017-2018	2,3	577/2017 EBAZPENA, uztailaren 3koa, Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiarena
2018-2019	0	50/2018 FORU AGINDUA, ekainaren 7koa, Hezkuntzako kontseilariarena
2019-2020	0	42/2019 FORU AGINDUA, ekainaren 7koa, Hezkuntzako kontseilariarena

Hots, 2013an (ehuneko 1,3) eta 2017an (ehuneko 2,3) eguneratu ziren prezio publikoak. 2018an eta 2019an, 2017-2018 ikasturterako onetsitako prezioei eutsi zitzaizkien.

2017-2018 ikasturtean, araututako jarduera profesionaletan aritzeko gaitzen duten unibertsitate-masterretako lehenengo matrikularen kredituen prezioa kostuaren ehuneko 25etik 20ra igarotzen zen, eta araututako jarduera profesionaletan aritzeko gaitzen ez duten unibertsitate-masterren prezioa ehuneko 40tik 25era. Azken aldaketa hori Estatuko 2017rako Aurrekontu Orokorreko buruzko Legea betetzeko egin zen, master horien lehenengo matrikularen urkilaren beheko portzentajea ehuneko 40tik 15era jaitsi baitzuen.

Honako taula honetan, graduako eta masterreko lehenengo eta hurrengo matrikuletako kreditu bakoitzaren prezio publikoak 2012tik 2018ra izandako bilakaera jasotzen da:

Zenbatgarren matrikula	2012-2013 ikasturtea		2013-2014tik 2016-2017ra		2017-2018 ikasturtea		2018-2019 ikasturtea	
Graduak	Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak	Ingeniaritzak eta Osasun Zientziak	Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak	Ingeniaritzak eta Osasun Zientziak	Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak	Ingeniaritzak eta Osasun Zientziak	Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak	Ingeniaritzak eta Osasun Zientziak
1. matrikula	15,70	22,24	15,90	22,53	16,27	23,05	16,25	23,05
2. matrikula	31,41	44,47	31,82	45,05	32,55	46,09	32,50	46,10
3. matrikula	68,05	96,35	68,93	97,60	70,52	99,84	70,50	99,85
4.a eta hur.	94,22	133,41	95,44	135,14	97,64	138,25	97,65	138,25
Graduondokoak	Master gaitzailea	Master ez gaitzailea	Master gaitzailea	Master ez gaitzailea	Master gaitzailea	Master ez gaitzailea	Master gaitzailea	Master ez gaitzailea
1. matrikula	27,34	43,75	27,70	44,32	22,67	28,34	22,65	28,35
2. matrikula	32,81	71,09	33,24	72,01	34,00	73,67	34,00	73,65
3. matrikula	71,09	71,09	72,01	72,01	73,67	73,67	73,65	73,65
4. matrikula	98,43	71,09	99,71	72,01	102,00	73,67	102,00	73,65

Nafarroako Gobernuak, prezioak zehazteko unean, ez du erabili NUPek kostuen estaldura finantzarioa justifikatzeko eginiko dokumentaziorik.

2020-2021 ikasturteari dagokionez, Unibertsitate Politikarako Konferentzia Orokorrean hitzartutako prezio publikoak finkatzeko eredu berria betetze aldera, graduako lehenengo matrikula ehuneko 2,38 murriztu da, eta aurreko urteko prezioei eutsi zaie gainerako matrikuletan.

1. eranskinean, xehetasun handiagoz jasotzen da 2012-2018 aldian zerbitzu akademikoak emateko prezio publikoen bilakaera.

Honako taula honetan, oinarrizko finantzaketa publikotik jasotako diru-sarrerak eta ikasturte bakoitzari dagozkion prezio publikoetatik jasotakoak azaltzen dira, ikasle kopuruaren arabera finantzaketa adierazita:

(milakoetan)

	Ekitaldia/Ikasturtea							Aldea (%) 18/17	Aldea (%) 18/12
	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018		
Oinarrizko finantzaketa publikoa	51.645	51.017	51.751	52.444	51.639	54.467	56.921	5	10
Prezio publikoen bidezko finantzaketa	8.265	9.234	10.481	9.586	10.918	9.709	9.818	1	19
Matrikulatutako ikasleak (Graduak+Zikloak+Masterrak+Doktoregoak)	8.055	8.369	8.295	8.308	8.134	8.143	8.225	1	2
Oinarrizko finantzaketa publikoa, ikasleko	6,41	6,10	6,24	6,31	6,35	6,69	6,92	3	8
Prezio publikoa, ikasleko	1,03	1,10	1,26	1,15	1,34	1,19	1,19	0	16
Prezio publikoak, graduko (Graduak+Zikloak)	6.157	7.020	7.463	6.402	7.835	6.979	6.930	-1	13
Graduetan matrikulatutako ikasleak (Graduak+Zikloak)	7.044	7.195	7.065	7.050	6.929	7.001	7.007	0	-1
Prezio publikoa, graduko ikasleko	0,87	0,98	1,06	0,91	1,13	1,00	0,99	-1	13
Prezio publikoak, masterreko	776	828	927	936	981	757	820	8	6
Masterretan matrikulatutako ikasleak	644	706	745	794	753	766	823	7	28
Prezio publikoa, masterreko ikasleko	1,20	1,17	1,24	1,18	1,30	0,99	1,00	1	-17

Iturria: NUP

Finantzaketa publikoak goranzko joera du, 2018an ehuneko 5eko igoera izan baitzuen 2017ari dagokionez, eta ehuneko 10ekoa 2012ari dagokionez, prezio publikoen bidezko finantzaketak bezalaxe, ehuneko 1etik 19rako igoera izan baitzuen 2017ari eta 2012ari dagokienez, hurrenez hurren.

2016an, oinarrizko finantzaketa publikoa murriztu egin zen, eta prezio publikoengatiko finantzaketa hazi, 2016-2017 ikasturtean graduko titulazioetan matrikulatzeko egutegia aldatu egin baitzen: sei hilez behingo bi kobrantza egitetik, ikasturte hasieran bakarra egitera igaro ziren. Unibertsitatean zerbitzu emateagatiko diru-sarrerak gora egin zuten, eta, ondorioz, finantzaketa-hitzarmenetik zetorren ekarpen publikoa murriztea erabaki zen urte hartako laugarren hiruhilekoan.

Honako taula honetan, finantzaketa-iturri bakoitzak guztizkoan duen pisu erlatiboa aurkezten da, 2012tik 2018rako ekitaldiei dagokienez. Finantzaketa publikoa ehuneko 80 baino handiagoa da ekitaldi guztietan:

Ekitaldia/Ikasturtea	Oinarrizko finantzaketa publikoa			Prezio publikoengatiko finantzaketa			Guztira	
	Guztira	ikasleko	% guztizkoan	Guztira	ikasleko	guztizkoan	Guztira	ikasleko
2012	51.645	6,41	86,20	8.265	1,03	13,80	59.910	7,44
2013	51.017	6,10	84,67	9.234	1,10	15,33	60.251	7,20
2014	51.751	6,24	83,16	10.481	1,26	16,84	62.232	7,50
2015	52.444	6,31	84,55	9.586	1,15	15,45	62.030	7,47
2016	51.639	6,35	82,55	10.918	1,34	17,45	62.557	7,69
2017	54.467	6,69	84,87	9.709	1,19	15,13	64.176	7,88
2018	56.921	6,92	85,29	9.818	1,19	14,71	66.739	8,11

Kontabilitate analitikoko sistema bat behar bezala ezartzen ez den bitartean, ikasketa bakoitzaren prezioen bilakaera eta Nafarroako Foru Komunitatetik jasotako finantzaketaren bilakaera bakarrik islatuko ditu analisiak.

Funtsean, Nafarroako Foru Komunitateak 2012-2013 ikasturterako finkatutako prezioak aurreko ikasturteko prezioen eguneraketa hutsa dira, graduako eta masterreko lehenengo matrikularen prezioek kostuaren ehuneko 15, 25 eta 40 irudikatzen dutela balioetsiz, hurrenez hurren. Orduetik, urteko prezioak KPIa aplikatuta ezarri dira bi aldiz, eta, 2017-2018 ikasturtean, masterreko matrikularen prezioa aldatu zen.

Kontabilitate analitikorik ez egoteak galarazi egiten du prezio publikoak eta titulu ofizialak eskuratzeari begirako eskubideak zerbitzua emateko kostuen arabera ezartzea, LOUren 81.3.b) artikulua esaten duen moduan.

IV.1.3 Unibertsitatearen ohiko finantzaketa

- 2017ra arte, Nafarroako Gobernuak eta NUPek unibertsitatea finantzatzeko hitzarmen bat sinatzen zuten urtero. Horren bidez, irakaskuntza- eta ikerketa-jarduerak ohi bezala funtzionatzea bermatzeko konpromisoa hartzen zuen Nafarroako Gobernuak, bai eta unibertsitateak bere baliabide ekonomikoak modu eraginkorrean erabiltzeko unean autonomia finantzarioa eduki zezan sustatzekoa ere. Bestalde, NUPek Nafarroako goi-mailako hezkuntza-zerbitzu publikotik jasotako enkargua eraginkortasunez kudeatzeko konpromisoa hartzen zuen, irakaskuntzari, ikasketari eta ikerketari dagokienez.

Gainera, azken hitzarmenetan, unibertsitatearen beste konpromiso batzuk jasotzen ziren: jardueraren kostuak zehazteko kontabilitate-kudeaketako sistemen diseinu-prozesuarekin jarraitzea eta kontabilitate analitiko bat ezartzen amaitzea, kostuen sistema batean oinarrituriko finantzaketa-eredu berri bat diseinatzeko xedez.

Nafarroako aurrekontu orokorretan zehazten da urteko ekarpena, eta, batez ere, bi aurrekontu-partidatan gauzatzen da: transferentzia arruntetan eta kapital-transferentzietan (azken horiek inbertsio jakin batzuekin lotuta daude).

- 2017ko abenduan, 2018-2020 aldirako urte anitzeko finantzaketa-hitzarmena sinatu zen, eta bertan eredu bat ezarri zen, NUPek Nafarroako aurrekontu orokorretatik jaso beharreko finantzaketa publikoa nahiz atxiki gabeko diruzaintza-gerakinaren ondoriozko finantzaketa arautzen dituenena. Urteko finantzaketa, bada, hasiera batean honako zenbateko balioetsi hauek zeuzkaten lau osagaien batura da:

Osagaia	Tresnak	2018	2019	2020
Egiturazko finantzaketa (EF)	Dirulaguntza finkoa (DF)	21.849.336	22.504.816	23.179.960
	Ikerketa-ahalmenaren finantzaketa (IAF)	9.545.416	9.831.778	10.126.731
Egiturazko finantzaketa guztira		31.394.752	32.336.594	33.306.691
Emitzen araberako finantzaketa (EAF)	Irakaskuntza-emaitzen araberako dirulaguntza (IED)	20.435.437	21.360.597	22.322.976
	Ikerketa-emaitzen araberako dirulaguntza (IEAD)	4.002.934	4.108.763	4.217.766
	Transferentzia-emaitzen araberako dirulaguntza (TED)	503.796	503.796	503.796
Emitzen araberako finantzaketa guztira		24.942.166	25.973.154	27.044.538
Hobekuntzetarako finantzaketa (HF)	Kalitatea hobetzeko transferentziak	584.161	1.111.589	1.368.884
Inbertsioetarako finantzaketa (IF)	Inbertsio espezifikoetarako transferentziak	1.777.000	1.565.000	1.911.000
EF+AEF+HF+IF guztira		58.698.080	60.986.339	63.631.113

a) Egiturazko finantzaketaren barruan, dirulaguntza finko bat dago, unibertsitatearen egiturazko gastuak eta ikerketa-ahalmena finantzatzeko dena (irakasle eta ikertzaileen kostuaren ehuneko 30 finantzatzen du, irakasle finkoek ikerketari eskaintzen dioten lanaldiaren portzentajea delako hori).

b) Hitzarmena indarrean den urte bakoitzerako, emaitzen arabera finantzaketa zehazten da, unibertsitate-jardueraren askotariko elementuetan (irakasle-taldeen kopurua, nazioartekotzea, ikerketa eta ezagutzaren transferentzia) erdietsitako emaitzekin loturiko dirulaguntzen bidez.

c) Hobekuntzetarako finantzaketaren bidez, unibertsitate-jardueran garrantzitsuak diren alderdien kalitatea hobetzea sustatu nahi da, eta xedeen lorpenari loturiko zenbateko jakin batzuk zehaztuta dauzka.

Egiturezko finantzaketara, emaitzen arabera finantzaketara eta hobekuntzetarako finantzaketara bideratutako funtsak kalkulatzeko, formulak eta adierazleak erabiltzen dira, unibertsitatea oro har finantzatzeko helburuz. Inbertsioetarako funtsen helmuga espezifikoak urte anitzeko hitzarmenean bertan finkatzen da.

Urteko behin betiko zenbatekoak hainbat parametreri aplikatzen zaien eguneratze-indize² baten arabera zehazten dira, eta hitzarmeneko aldagaien kopuruak eta adierazleak eguneratuz. Azken finantzaketa, ordea, araudi berriek eta NFKren ekonomia- eta aurrekontu-magnitudeen bilakaerak dakartzaten ondorio ekonomikoen arabera doitzen da.

Honako hauek izan dira 2018-2020 aldian Nafarroako aurrekontu orokorretatik etorritako finantzaketa eta atxiki gabeko diruzaintza-gerakina:

	2018	2019	2020
Transferentzia arruntak	56.921.080	61.821.338	67.489.000
Kapital-transferentziak	777.000	665.000	1.011.000
Atxiki gabeko diruzaintza-gerakina	1.847.018	900.000	900.000
Guztira	59.545.098	63.386.338	69.400.000

Txosten honen 2. eranskinean, xehetasun handiagoz jasotzen dira Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2018-2020 aldirako urte anitzeko finantzaketa-hitzarmenaren osagaiak, tresnak eta adierazleak.

Hortaz, NUP urte anitzeko hitzarmen baten bidez finantzatzeko eredu berria taxutu izanak aurrerapauso handia egitea ekarri du, aurreko urteko finantzaketa-hitzarmenekin alderatuta; izan ere, finantzaketa-esparru egonkorra ahalbidetzen dio unibertsitateari 2018-2020 aldirako; finantzaketa-osagaiak kalkulatzeko adierazleak eta balioak jasotzen ditu, eta gardentasuna nahiz objektibotasuna eranstean dizkio baliabide publikoen esleipenari.

Ereduak, 2017rako finkatutako balio batzuetatik abiatuta, ondoko hiru urteetarako finantzaketa ezartzen du.

IV.1.4 Unibertsitatean ikasteko laguntzak

Unibertsitate-eremuan, arrazoi ekonomikoengatik inor unibertsitatean ikasi gabe gera ez dadin, LOUren 45. artikulua ikasteko beka eta laguntzak arautzen ditu.

Beka horiek finantzatzeko sistema iragankorrean, Estatuak 2011-2012 ikasturterako finkatu diren prezio publikoaren arabera konpentsazioa ematen die unibertsitateei, ehuneko 1ean eguneratuta. Horrela, unibertsitateari emandako zenbatekoa matrikula-bekaren kostua baino txikiagoa bada, autonomia-erkidegoak aldea ordaintzen dio unibertsitateari, bekaren onuraduna edozein betebeharrak ekonomikotik salbuetsu dadin. Beraz, prezio publikoaren igoerak autonomia-erkidegoen aurrekontuetan ditu ondorioak, Estatuak estaltzen ez duen beka-zatia dela-eta.

²Eguneratze-indizea zehazteko, honako hauek kalkulatu dira: Nafarroako aurrekontu orokorren gastu-mugak aurreko urteari dagokionez portzentajeetan izandako aldaketa (ehuneko 25ean) eta Nafarroako Aurrekontu Orokorren Foru Legearen aurreproiektuaren 1. kapituluaren osatzen duten kredituek izandako aldaketa (ehuneko 75ean).

2012-2018 aldian, honako hau izan da matrikula-beken bilakaera, ikasleko:

Ikasturtea	Estatuaren konpentsazioa: matrikula-bekak	Estatuaren konpentsazioa: familia ugaria	NFKren konpentsazioa	Bekadun ikasleak	Bekak, ikasleko	Estatuaren bekak, ikasleko		NFKren bekak, ikasleko	
						Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
2012-2013	1.154.636	457.048	111.126	1.295	977	892	91,22	86	8,78
2013-2014	1.400.354	498.759	101.195	1.542	974	908	93,26	66	6,74
2014-2015	1.430.615	517.341	94.674	1.585	962	903	94,79	60	6,21
2015-2016	1.446.216	556.708	89.411	1.578	973	916	94,18	57	5,82
2016-2017	1.286.737	583.828	83.277	1.411	971	912	94,92	59	6,08
2017-2018	1.366.380	496.085	87.290	1.538	945	888	94,00	57	6,00
2018-2019	1.253.453	753.221	78.474	1.412	943	888	94,11	56	5,89

Iturria: NUP

Taula horretan ikus dezakegunez, azken bi ikasturteetan behera egin du matrikula-beken gutzitza; aurrekoetan, berriz, kopuru hori nahiko egonkorra zen. Finantzaketaren jatorriari dagokionez, Estatuaren eta NFKren ekarpena ia-ia konstantea izan da 2014-2015 ikasturtetik aurrera: ehuneko 94ko ekarpena egiten du lehenengoak, eta ehuneko 6koa bestekak.

Horrenbestez, IV.1.2 atalean adierazitako prezio publikoen aldaketek ez dute eragin nabarmenik izan NFKren finantzaketa handitzeari begira, eta unibertsitatean ikasteko laguntzen finantzaketa-sistema iragankorra neutral mantendu da, NFKren finantza-betebeharrei dagokienez.

• Azkenik, honako taula honetan, NFK-k aldi horretan esleitu dituen laguntzen bilakaera jasozten da. Laguntza horien bidez, Estatuak unibertsitatean ikasteko eta NUPEk zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleei matrikula ordaintzeko ematen dizkieten laguntzak osatzen dira.

IKASTURTEA	Esleitutako zenbatekoak (deialdien arabera)		
	NFK	NUP	GUZTIRA
2012-2013	143.031	5.000	148.031
2013-2014	136.034	35.606	171.640
2014-2015	143.643	34.291	177.934
2015-2016	146.813	36.731	183.544
2016-2017	445.780	57.554	503.334
2017-2018	268.590	46.218	314.808
2018-2019	295.605	24.768	320.373

Ateratako konklusioak kontuan hartuta, hona hemen aztertutako kudeaketa hobetzen lagundu dezaketan gomendioak:

• *Kontabilitate analitikoaren ezartzen jarraitzea, Estatuaren eta autonomia-erkidegoko administrazioen laguntzarekin. Kontabilitate-eredu horrek irakaskuntza- eta ikerketa-jarduerari loturiko kostuak zein diren jakitea ahalbidetu behar du, bai eta prezio publikoak nahiz titulu ofizialak eskuratzeko eskubideak ezartzea ahalbidetu ere, zerbitzu-ematearen kostuei dagokienez, LOUren 81.3.b) artikulua adierazten duen moduan.*

• *Nafarroako Unibertsitate Publikoaren zerbitzu akademikoak emateagatiko prezio publikoak finkatzeko prozesuan parte har dezala sustatzea; bereziki, preziook kostuaren arabera finkatzen diren unean, LOUk eskatu bezala.*

IV.2. NUP 2017 TXOSTENeko GOMENDIOEN JARRAIPENA

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2017ko ekitaldiko fiskalizazio-txostenean, 13 gomendio jasotzen dira. Gomendioon gaur egungo egoera (guztiz edo hein handi batean aplikatuta, zati batean aplikatuta, aplikatu gabe, gaur egungo esparruan baliozkotasunik gabe eta egiaztatu gabe) honako hau da:

1.- *Kontabilitate Publikoaren 2010eko Plan Orokorra (KPPO) ezartzea, bai aurrekontu- eta finantza-jarduera erregistratu eta haren jarraipena egiteko, bai urteko memoriaren egitura eta edukia Planaren manuetara egokitze.* **“Aplikatu gabe”**.

Unibertsitatearen urteko kontuak Kontabilitate Publikoaren 1994ko Plan Orokorraren arabera aurkezten dira.

NUPen arabera, aurreko urteetako irizpideari eutsi zaio, foru-komunitatean KPPOa onetsi eta ezartzeko zain daudelako. Alabaina, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak 123. artikuluan ezartzen du Ekonomia eta Ogasun Departamentuari dago kiola foru-komunitatearen KPPOa onestea eta, berariaz onesten ez badu, sektore estatalerako onetsitako KPPOa aplikatuko dela.

Horregatik uste du ganbera honek NUPek 2010eko KPPOa aplikatu behar duela; horrenbestez, egindako gomendioak indarrean jarraitzen du.

2.- *Lanaldi osorako kontratatutako irakasle eta ikertzaileen (IIL) portzentajeak (ehuneko 49 baino gutxiago), aldi baterako kontratatutako irakasle eta ikertzaileen portzentajeak (ehuneko 40 baino gutxiago) eta irakasle eta ikertzaile doktoreen portzentajeak (ehuneko 70 baino gehiago) betetzea, LOUren araudiarekin eta irakasle eta ikertzaileen jarraibideekin bat etorriz.* **“Zati batean aplikatuta”**.

Hurrengo hiru ataletan aztertuko dugu gomendio hau:

- LOUk eta NUPen estatutuek honako hau ezartzen dute: «Lanaldi osorako kontratatzen diren irakasle eta ikertzaileen portzentajeak ezin izanen du gainditu irakasle eta ikertzaile guztien ehuneko 49».

Langile horiek 2014tik 2019ra izandako bilakaera:

Araubide juridikoa	Lanaldi osoko IIL-kop.					
	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Kontratadunak	263,60	264,63	276,47	291,82	313,21	332,93
Funtzionarioak	335,59	332,08	324,08	326,05	324,48	326,48
Lanaldi osoko IILak guztira	599,19	596,70	600,55	617,87	637,69	659,41
Lanaldi osoko IILak (%)	43,99	44,35	46,04	47,23	49,12	50,49

- Lanaldi osoko irakasle eta ikertzaileen portzentajeak gora egin du 2014tik, eta, 2018an eta 2019an, LOUK eta unibertsitatearen estatutuek ezarritako muga zertxobait gainditu zuen.

LOUk ezartzen duenez, «aldi baterako kontratatzen diren irakasle eta ikertzaileen portzentajeak ezin izanen du gainditu irakasle guztien ehuneko 40». Arauan, ez da zehazten denbora osorako konputatutako langileei buruz ari den ala ez; hori dela-eta, irakasle eta ikertzaile kopuruari nahiz lanaldi osoko irakasle eta ikertzaile kopuruari buruzko datuak jasotzen dira taula honetan:

Araubide juridikoa	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Guztira kontratatutakoak	520	530	561	572	606	634
IIIak guztira	856	863	885	901	934	966
Aldi baterako kontratatutako IIIen ehunekoa, guztizkoan	51,99	52,72	54,92	55,60	57,71	57,76
Lanaldi osorako kontratatuak guztira	267	269	281	294	315	333
Lanaldi osoko IIIak guztira	599	597	601	618	638	659
Aldi baterako kontratatutako lanaldi osoko IIIen ehunekoa, guztizkoan	31,98	32,45	34,38	36,06	38,92	38,96

2014-2019 aldian, irakasle eta ikertzaileen guztizkoan gora egin du aldi baterako kontratatutako irakasle eta ikertzaileen portzentajeak: 2019an, ehuneko 58ra iritsi zen ia, LOUk ezarritako ehuneko 40ko portzentajea gaindituz. Alabaina, lanaldi osoko irakasle eta ikertzaileen guztizkoan, aldi baterako kontratatutako lanaldi osoko irakasle eta ikertzaileen portzentajea araudiak ezarritako mugatik zertxobait behera mantendu da.

Ondorioz, gomendioak indarrean jarraitzen du datozen urteetarako ere: irakasle eta ikertzaileen guztizkoan, aldi baterako kontratatutako irakasle eta ikertzaileen portzentajeak ehuneko 40 baino txikiagoa izan behar du, 2014tik langile gehiago kontratatzen direla aintzat hartuta.

- 2018an eta 2019an, irakasle eta ikertzaileen guztizkoan, irakasle eta ikertzaile doktoreen portzentajeak ehuneko 70eko muga gainditu zuen. 2016ko ekainaren 15ean, irakasleak eta ikertzaileak arautzeko jarraibideak eman ziren, eta, haietan zehazten zenez, irakasle eta ikertzaile doktoreen portzentajeak erreferentziazko plantilla-egituraren % 60 eta 70 artean egon behar zuen. Jarraibideok, ordea, Gobernu Kontseiluaren hainbat erabakiren bidez aldatu dira, eta hutsik utzi zen jarraibideetan irakasle eta ikertzaile doktoreen portzentajeari buruz jasotzen zen atala.

Hortaz, gomendioa ez da baliozkoa gaur egungo esparruan.

3.- *Langileen espedienteak osatzea, langileen inguruan idazten diren administrazio-egintza guztiak txertatuz. “Zati batean aplikatuta”.*

Kudeatzailearen ebazpena, beste administrazio batzuetan emandako zerbitzuak aitortzen dituen, langileen espedienteetan sartuta dago.

Espedienteetan, ordea, aurretik aldi baterako kontratuekin NUPen zerbitzu eman duten langile kontratatuei aitorturiko antzinatasunaren zehaztapena ere sartu behar da.

4.- *Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez egindako kontratuen espedienteetan, behar beste justifikatu behar da ez zegoela bestelako aukerarik (operadore ekonomiko batek bakarrik egin ditzake horrelako kontratuak). “Aplikatuta”.*

2019an, operadore ekonomiko batek bakarrik egin ditzakeen bost kontratu esleitu dira publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez. Kontratuon dokumentazioa aztertu dugu, eta kontrataziook behar beste justifikatu direla balioetsi.

5.- *Kudeaketa-prozedura bat ezartzea, ikerketa-kontratuen jarraipen egokia eta horien exekuzioa bermatzeko, aurrekontuetan aurreikusitakoarekin bat. “Zati batean aplikatuta”.*

Unibertsitateko Ikerketak Bestetartzeko Bulegoaren kontratuak³ egikaritzean, aurrekontua barne-erreferentzia izaten da hala gastuen aurreikuspena egiteko, nola proiektuaren finantzaketa kontrolatzeko.

Exekuzioaren jarraipen egokia egiteko, NUPen araudia aldatzeko aukera aztertzen ari dira, kontratuari alta eman aurretik (eta barne-mailako xedeekin bakarrik) kontratuaren aurrekontu banakatua egin dadin. Horrela, aurrekontua oraindik zehazteko dagoen portzentaje jakin batetik desbideratzen bada, desbideratze hori azaltzeko txostena eskatu ahalko zaie ikertzaileei.

6.- *Ordainsarien gastuak baimentzeko eskumena behar bezala arautzea, gastuen unitate funtzional baten aurrekontua betearazteko oinarrietan finkatutako zenbatekoa gainditzen badute. “Aplikatuta”.*

2020ko ekitaldian, Unibertsitateko Ikerketak Bestetartzeko Bulegoaren kontratuen ondoriozko ordainsari-proposamenak izapidetu eta baimentzeko prozedura aldatu da, ikertzaileei nominan abonatu beharreko ordainsariei dagokienez. Hala, 25.1.d) artikulua gaineratu zaie 2020ko aurrekontua betearazteko oinarriari, testu honekin: “*LOUren 83. artikulua babesean sinatutako kontratuei dagozkien ordainsari ez-aldizkakoek Ikerketako errektoreordearen oniritzia izanen dute, ordaindu aurretik*”.

7.- *Urteko kontuen memoriara ekitaldiaren amaieran matrikulengatik kobratzeko dauden eskubideei buruzko informazioa sartzea. “Aplikatuta”.*

2019ko urteko kontuetan, diru-sarreraren likidazioari buruzko atalean, graduako, masterreko eta doktoregoko matrikuletan kobratzeko dauden zenbatekoei buruzko informazioa biltzen duen taula bat erantsi da, ikasturtearen arabera banatua.

8.- *Matrikuletan aplikatutako salbuespenen jarraipena egitea, guztizko zenbatekoa zein den jakiteko, kontzeptuaren, matrikula motaren eta onuradun kopuruaren arabera. “Hein handi batean aplikatuta”.*

Zerbitzu akademikoen eta titulu ofizialak eskuratzeari begirako gainerako eskubideen prezio publikoen salbuespenek eta hobariak prezio horiek murrizten dituzte, eta ez dira ez diru-sarreretan, ez diru-sarreraren kalkuluetan eta kontabilizazioan islatzen. Ohiko bekak eta familia ugarien salbuespen orokorrak dira salbuespena: NUPEk Espainiako Gobernutik (Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren bidez) eta Nafarroako Gobernutik (Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren bidez) jasotzen du horien konpentsazioa.

Alabaina, NUPEk ez du konpentsaziorik jasotzen salbuespen eta hobari batzuetatik. Bada, horiek kudeaketa akademikoko software batean erregistratu eta kudeatzen dira, baina informazio xehea eman ahalko duen eta salbuespen nahiz hobari horien ezagutza estatistikoa edukitzea ahalbidetuko duen txosten batean ari dira lanean.

9.- *Nafarroako Gobernuko Ogasun Departamentuarekin ordaingabeen diru-bilketa betearazpen-bidean kudea dadila hitzartzeko aukera aztertzea. “Aplikatuta”.*

Betearazpen-bidea aztertuta eta neurriaren zailtasunei nahiz zordunen analisisiei erreparatuta, NUPEk egoki ikusi du gomendio hau etenaldian uztea.

10.- *Unibertsitatearen memorian, Fundazioaren egoera-orri finantzarioekin batera, auditoretza finantzarioko txostena sartzea. “Aplikatuta”.*

2018ko eta 2019ko urteko kontuetan, Fundazioaren egoera-orri finantzarioekin batera, auditoretza finantzarioko txostena sartu da.

11.- *Fundazioari enkarguaren likidazio partzialak eginarazteko eta ordainarazteko ebazpenak onestea. “Aplikatu gabe”.*

³ Unibertsitate bateko ikertzaile-talde baten eta enpresa baten arteko lankidetzaren erregulazioak duten kontratuak eta hitzarmenak.

NUPen ustez, ez da zertan enkarguaren likidazio partzialak eginarazteko eta ordainarazteko ebazpenik egin, enkarguaren ebazpenean jasotzen eta onesten direlako Unibertsitatea-Gizartea Fundazioaren likidazioen zenbatekoa, partida eta kontzeptua. Halaber, aitortzeko eta ordaintzeko ageri dira likidazio partzialak, Ikasleen, Enpleguaren eta Ekintzaitzaren errektoreordearen sinadurarekin, zeina Fundazioko arduraduna den.

12.- *Fundazioari agindutako jardueren matrikulen kobrantzak kontabilizatzeko gaur egungo prozedura aldatzeko aukera aztertzea, kudeaketa errazte aldera. “Aplikatuta”.*

2019ko urteko kontuen memorian, urriaren 9ko 2077/2019 Ebazpena onetsi da, aurreko gomendioa betetzeko.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen urriaren 9ko 2077/2019 Ebazpenaren bidez, Kontuen Ganberaren gomendioari jarraikiz (hots, kudeaketa errazte aldera, Fundazioari agindutako jardueren matrikulen kobrantzak kontabilizatzeko gaur egungo prozedura aldatzeko aukera aztertzeko gomendioari jarraikiz), 2423/2018 Ebazpenaren 1.3.a) eta b) letren testua aldatzea proposatu zen, eta honela geratu zen:

“a) Fundazioak bere gain hartuko du enkargatutako jardueren diru-sarrerak biltzeko lana.

b) Fundazioak Gerentzian aurkeztuko ditu fakturak eta gastuen likidazioak:

- Aurrekontua, 3. puntuan adierazten denaren arabera. “2019ko aurrekontuaren likidazioa”.
- Unibertsitateak Fundazioari agindutako jarduerengatik jasotako laguntzak itzultzea.

Urteko kontuetan Unibertsitatea-Gizartea Fundazioarekin finkatutako kontabilitate-egoera aurkezten bada, ez da beharrezkoa Fundazioak matrikulen dirua unibertsitateari sartzea, haren aurrekontuan agertzeko moduan, gero berriro itzuli beharko baitzaizkio, jarduera horiek kudeatzeko.

13.- *Fundazioko langileak hautatzeko prozesu partzial eta azkenen emaitzak argitaratzea, gardenagoak izan daitezen. “Aplikatuta”.*

Gomendio hau betetzeko, Fundazioak honako aldaketa hauek egin zituen langileak hautatzeko prozeduran:

- Eskatzen den profila eta hautapen-prozesua argitaratzea, kronograma barne hartuta.
- Lan-eskaintzan izena emandako izangai guztien zerrenda (izena eta bi abizen) Fundazioaren web-orrialdean argitaratzea, haien curriculumaren zenbakizko balorazioarekin batera.
- Hala badagokio, gaitasun teknikoko azterketaren nota eta zuzendutako azterketa argitaratzea.
- Egindako elkarrizketa pertsonalen baremazioa eta izangaien amaierako baremazioa argitaratzea Fundazioaren web-orrialdean.

Txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore M^a Carmen Azcona Díez de Ulzurrun andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2020ko abenduaren 14an

Presidentea,

Asunción Olaechea Estanga

1. ERANSKINA.- 2012-2018 ALDIAN ZERBITZU AKADEMIKOAK EMATEGATIKO PREZIO PUBLIKOEN BILAKAERA

Gradu- Ikasketak	2012-2013 ikasturtea		2013-2014tik 2016- 2017ra		2016-2017 eta 2012- 2013 ikasturteen arteko aldea (%)		2017-2018 ikasturtea		2017-2018 eta 2016- 2017 ikasturteen arteko aldea (%)		2018-2019 ikasturtea		2018-2019 eta 2017- 2018 ikasturteen arteko aldea (%)		2018-2019 eta 2012- 2013 ikasturteen arteko aldea (%)	
	Gizarte Zientziak	Ingeniaritzak	Gizarte Zientziak	Ingeniaritzak	Gizarte Zientziak	Ingeniaritzak	Ingeniaritzak	Osasun Zientziak	Osasun Zientziak	Osasun Zientziak	Osasun Zientziak	Osasun Zientziak	Osasun Zientziak	Osasun Zientziak	Osasun Zientziak	Osasun Zientziak
1. matrikula	15,70	22,24	15,90	22,53	1,30	1,30	16,27	23,05	2,30	2,30	16,25	23,05	-0,10	0,00	3,50	3,60
2. matrikula	31,41	44,47	31,82	45,05	1,30	1,30	32,55	46,09	2,30	2,30	32,50	46,10	-0,20	0,00	3,50	3,70
3. matrikula	68,05	96,35	68,93	97,60	1,30	1,30	70,52	99,84	2,30	2,30	70,50	99,85	0,00	0,00	3,50	3,60
4. matrikula eta hurrengoak	94,22	133,41	95,44	135,14	1,30	1,30	97,64	138,25	2,30	2,30	97,65	138,25	0,00	0,00	3,60	3,60
Graduondoko ikasketak	Master gaitzailea	Master ez gaitzailea	Master gaitzailea	Master ez gaitzailea	Master gaitzailea	Master ez gaitzailea	Master gaitzailea	Master ez gaitzailea	Master gaitzailea	Master ez gaitzailea	Master gaitzailea	Master ez gaitzailea	Master gaitzailea	Master ez gaitzailea	Master gaitzailea	Master ez gaitzailea
1. matrikula	27,34	43,75	27,70	44,32	1,30	1,30	22,67	28,34	-18,20	-36,10	22,65	28,35	-0,10	0,00	-17,20	-35,20
2. matrikula	32,81	71,09	33,24	72,01	1,30	1,30	34,00	73,67	2,30	2,30	34,00	73,65	0,00	0,00	3,60	3,60
3. matrikula	71,09	71,09	72,01	72,01	1,30	1,30	73,67	73,67	2,30	2,30	73,65	73,65	0,00	0,00	3,60	3,60
4. matrikula	98,43	71,09	99,71	72,01	1,30	1,30	102,00	73,67	2,30	2,30	102,00	73,65	0,00	0,00	3,60	3,60

2. ERANSKINA.- NUPEN 2018-2020 ALDIRAKO URTE ANITZEKO FINANTZAKETA-HITZARMENA

Osagaia	Tresnak	Elementuak	Hasierako balloak	Eguneratzea ⁴	2018	Balloetsia 2019	Balloetsia 2020
Egiturazko finantzaketa (EF)	Dirulaguntza finkoa (DF) Ikerketa-ahalmenaren finantzaketa (IAF) (II % 30)	2017 oinarria III. ordainsarien % 30	21.440.361 9.366.745	Eguneratze-indizea	-	-	-
EF guztizko partziala			30.807.107		31.394.752	32.336.594	33.306.691
	Irakaskuntza-emaitzen araberako dirulaguntza (IED)	Irakasle-taldearen kostua (IK) ⁵ Nazioartekotze-jardueren diru-sarrerengatiko dirulaguntza unitarioa	100.203 0,22	Eguneratze-indizea Faktore iraunkorra	20.320.824 114.613	21.245.984 114.613	22.208.363 114.613
			19.722.358		20.435.437	21.360.597	22.322.976
	Ikerketa-emaitzen araberako dirulaguntza (IEAD)	Zientzia-ekoizpenagatiko dirulaguntza unitarioa Ikerketa-tarteengatiko dirulaguntza unitarioa	1.000 2.400	Eguneratze-indizea	1.261.615 645.686	1.299.463 665.057	1.338.447 685.008
			5.000		1.620.329	1.668.939	1.719.007
		Doktorego-tesienagatiko dirulaguntza unitarioa Ikerketa-proiektu lehiakorren diru-sarrerengatiko dirulaguntza unitarioa	0,22	Faktore iraunkorra	475.304	475.304	475.304
			3.791.933		4.002.934	4.108.763	4.217.766
		Ezagutzaren trans. eta prestakuntza etengabearen diru-sarrerengatiko dirulaguntza unitarioa	0,25	Faktore iraunkorra	356.545	356.515	356.545
		Prestakuntza etengabearen diru-sarrerengatiko dirulaguntza unitarioa	0,22	Faktore iraunkorra	147.251	147.251	147.251
			483.669		503.796	503.796	503.796
EAF guztizko partziala			23.997.959		24.942.167	25.973.156	27.044.538
EF+AEF GUZTIRA			54.805.066		56.336.919	58.309.750	60.351.229

⁴Eguneratze-indizea zahazteko, Nafarroako aurrekontu orokorren gastu-mugak aurreko urteari dagokionez portzentajeetan duen aldaketa (ehuneko 25ean) eta Nafarroako Aurrekontu Orokorren Foru Legearen aurreproiektuaren 1. kapitulua osatzen duten kredituen aldaketa (ehuneko 75ean) kalkulatzeko dira.

⁵ Kontabilitate analitikoaren ezarritako zehaztuak da kalkulua. Aplikazio hori eduki arte, funtzionamendurako batez besteko dirulaguntza aplikatuko da.

Osagaia	Tresnak	Elementuak	Adierazleak	Hasierako balioak	2018	Balioetsia 2019	Balioetsia 2020
		Ingelesez eskainitako kredituen-kop. handitzea	Ingelesez eskainitako kreditu-kop.	1.526	1.653	1.771	1.897
		Euskaraz eskainitako kreditu-kop.	Euskaraz eskainitako kreditu-kop.	1.460	1.495	1.529	1.564
		Euskarazko irakaskuntza eta horren kalitatea areagotzea	Euskaraz argitaratutako irakaskuntza-materialak dituzten ikasgaiak	-	3	8	13
Hobekuntzetarako finantzaketa (HF)	Kalitatea hobetzeko transferentziak	DBHko irakasleak trebatzeko graduondokoen eskaintza handitzea	Eskainitako tokiak	120	120		
		Nazioarteko aipamendun tesi irakurrien kop. handitzea	Nazioarteko aipamendun tesi irakurrien kop.	% 29	% 32	% 35	% 37
		Irakasle gazteen ibilbide akademikoari laguntzeko neurriak sustatzea	Doktore laguntzaileen kop.	-	6	9	12
		Prestigiodun irakasleak/ikertzaileak erakarri eta atxikitzeko kontratu motak prestatzea	Kontratu mota berrien bidez kontratatutako irakasle-kop.	-	3	7	12
HF guztizko partziala				584.161	1.111.589	1.368.884	
Osagaia	Tresnak	Elementuak		2018	Balioetsia 2019	Balioetsia 2020	
		3. Fasea - Ikasgela-eraikina		657.000	-	-	
		2. fasea - Sario eraikina		-	400.000	746.000	
Inbertsioetarako finantzaketa (IF)	finan-transferentziak	Irakasteko ekipamendua		650.000	650.000	650.000	
		Ikertzeko ekipamendua		470.000	515.000	515.000	
IF guztizko partziala				1.777.000	1.565.000	1.911.000	
EF+AEF+HF+IF GUZTIRA				58.698.080	60.986.339	63.631.113	

